



foro de competitividad  
**euskadi2015**  
lehiakortasun foroa


Industria-egoeraren  
**b e h a t o k i a**

**txosten betearazlea**  
**2009ko uztailaren 16a**

**spri**

industriaren sustapen eta  
erabiltzailetza balmis, s.a.  
sociedad para la promoción  
y reconversión industrial, s.a.






## Behatokiaren eremu ekonomikoa 2009ko uztailean

Otsailean, batzarra gerta zitekeen egoera txarrenetako batean burutu zen: hegazkortasuna merkatuan, konfiantza uzkurtuta, datu ekonomiko ezin txarragoak argitara emanak, eta gobernuek egindako esku-hartzeen aurrean zalantza. Martxotik aurrera, ekonomiaren gainbehera motelduz joan da eta Industria Egoeraren Behatokiaren uztaileko batzarra ez da egin hain egoera txarrean: finantza-merkatuetan egonkortasun pixka bat sumatzen da, lehengaien prezioa goraka hasi dira, petrolioaren prezioa adibidez, eta konfiantza adierazleetan hobekuntza pixka bat nabaritzen hasi da.

Momentuz, halere, finantzaren perspektibek eta perspektiba makroekonomikoek ilun samarrak izaten jarraitzen dute. Ekonomia nagusien urteko lehen hiruhilekoko BPGren datuek ekonomiaren uzkurdua baieztatu zuten. AEBko BPGren urtetik urterako tasak, %2,5eko bilakaera negatiboa izan zuten, aurreko aldiaren baino ia bi puntu gutxiago. Japonian gainbehera askoz handiagoa izan zen, %8,4 jaitsi baitzen, 2008ko azken hiruhilekoan baino lau puntuko atzeraldi handiagoa. Europar Batasunean ere, -%4,5eko emaitzak, aurreko aldiaren baino hiru puntu gutxiago erakusten du, eta Alemaniako BPGren gainbehera nabarmendu behar da, -%6,9 hain zuzen.

Krisiak ekonomia gorakorrei ere eragin die, batik bat 2008ko azken hiruhilekotik aurrera, ekonomia aurreratuetako kontsumoaren eta inbertsioaren ahuldadeak esportazioen eskaera gutxitu baitzuen, eta egoera honek bat egin baitzuen nazioarteko banku-maileguen eta atzerriko inbertsioaren uzkurduarekin. Ondorioz, Txinakoa edo Indiakoa bezalako ekonomien hazkunde-erritmoa nabarmen jaitsi da: 2009ko lehen hiruhilekoan urtetik urterako BPG %6,1 eta %5,8 izan zuten hurrenez hurren, 2007an eta 2008an lortutako emaitzetatik oso urrun. Halere, adierazle batzuek berretsi egiten dute erakunde ofizialen aurreikuspenetan ageri zen hobekuntza txikia. Hor daude, esaterako, apirilean industria-ekoizpena handitu izana edo hil honetan bertan prezioak jaitsi izana.

ELGak, ekaineko azken aurreikuspenetan, AEBko eta ekonomia gorakor batzuen hazkunde berrikusi du eta aurretik uste zena baino gorago jarri du. Euro gunearen kasuan, ordea, oraindik orain ez da ikusten susperraldiaren zantzurik. Hala, 2009an mundu mailako BPGren hazkunde %0,8 izango dela aurreikusten du ELGak.

 **Egoera oraindik iluna da, baina adierazle ekonomikoetan hobekuntzak sumatzen hasi dira**

 **Egoera beti beherantz berrikusten da**



foro de competitividad  
**euskadi2015**  
lehiakortasun foroa




Erakunde honen ustez 2009an AEBko ekonomiak %2,8ko hazkunde negatiboa izango du, baina dagoeneko 2010ean susperraldi txikia ikusiko du, %0,9. Antzeko egoera ikusten du Japoniarentzat: 2009an ekonomiaren uzkurdua (-%6,8) eta hurrengo urtean hazkunde txiki bat (%0,7). Euro gunearentzat 2009an BPG %4,7 jausiko dela aurreikusten du, eta 2010ean aldiz, hazkunde nulua.

Espainiako ekonomiari dagokionez, ELGaren iritzian 2009an %4,9ko atzerakada izango da, eta 2010ean ere ez da susperraldirik egongo, urte horretan ere hazkunde negatiboa aurreikusten du eta, -%0,9. Era berean, susperraldia galaraziko duen elementuetako bat langabezia-tasa handia izango dela nabarmendu du: aurten %18,1 eta 2010ean, %19,6.



### Balio erantsiaren eta enpleguaren hiru hileko hazkunde-tasak 1997-2008, erreferentziako urtea: 2005



ITURRIA: EUSTAT. Garaiko eta egutegiko eraginak zuzendu ondorengo datuak



**ELGak 2010erako joera-aldaketa aurreikusten du**

SELGaren arabera, Txinako ekonomiak, gobernuaren finantza eta zerga bidezko estimuluei esker, azken hiletan itzulia eman du eta hartara 2009an %7,7ko hazkundera izatea espero da. Azpimarratu egin behar da zifra hau %8ko helburutik oso hurbil dagoela, hazkunderaren zenbateko hori behar baita hirietara joaten den landako biztanle-jario handiari aurre egiteko eta biztanleen oinarrizko premiei erantzuteko. 2010ean %9,3ko hazkundera izango duela aurreikusten da.




Euskadin, 2009ko lehen hiruhilekoan jasotako datuek ekonomiaren egoera eskasa berretsi dute, BPGn urtetik urterako lehen tasa negatiboa jaso baita,  $-2,5$ . Ondorioz teknikoki atzeraldian sartuta dago, bi hiruhilekotan jarraian tasa negatiboak lotu ondoren.

Sektore produktiboen arabera, industriak zein eraikuntzak balore negatiboak izan dituzte,  $8,4$  eta  $2,4$  hurrenez hurren. Bien bitartean, zerbitzuen sektoreak ere dinamismoa galdu du, hazkunde txiki bat lortu duen arren,  $0,4$ .

Industria inoizko garai txarrenetako batean dago, eta ekoizpenak bi digituko gainbeherak izan ditu. 2009an Industria-ekoizpenaren Indizeak  $26,5$ eko beherakada izan zuen 2008ko hil berdinarekiko, Eustaten datuen arabera. Gainbehera hori eta martxoan jasandakoa,  $26,7$ , indizean inoiz jaso diren handienak izan dira.



### Euskadiko industria-ekoizpenaren indizea, Espainiarekin, EB 27rekin, Alemaniarekin eta Frantziarekin alderatuta



ITURRIA: EUSTAT, EUROSTAT eta EIN. Zikloaren joeraren urteko hazkunde-tasa zentratua TSWren bidez kalkulatu da



 **Euskadin  
susperraldia ez da  
2011 arte helduko**

Lehen hiruhilekoan, sektore guztiek balio negatiboak izan zituzten enpleguari dagokionez. Industria izan zen enplegu gehien galdu zuenetako bat, -%4,8, eta eraikuntza sektoreak bakarrik suntsitu zituen enplegu gehiago, urtetik urterako %8,5eko tasa negatiboarekin.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren ustez, 2009an Euskadiko hazkundera negatiboa izango da, %2,4 inguru, eta hainbeste desio dugun susperraldia ez da 2010ean helduko, urte horretan BPGk %0,7ko atzeraldia eta enpleguak %1,6ko atzeraldia izatea aurreikusten da eta. Hartara, langabezia tasa %10 inguruan kokatuko litzateke 2010ean.

## 2009ko batzarrean jasotako inpresioak

### Bertaratu ziren klusters/sektoreak

2009ko uztailleko batzarrean hamazazpi enpresa-elkarteren ordezkariak izan ziren. Guztien artean 50.000 milioi euroko fakturazioa lortu zuten eta 130.000 langiletik gora biltzen zituzten.

Ekipamendu eta Energia Ondasunen sektoreko ordezkariak lehen aldiz hartu zuten parte.

### Garapena: enplegua, fakturazioa eta tarteak


2009an sektore guztietan fakturazioan beherakadak izango direla aurreikusten da. Ingurumenaren sektorea bera 2008aren aldean apaldu egingo da, iazkoa aparteko urtea izan baitzen, baina dena dela, aurreikusitakoaren ildotik, emaitza positiboak izango ditu.

Eskabide-zorroek ere zantzu negatiboak dituzte eta egoera kezagarria da ontzigitzaren sektorean, orain arte krisiaren eraginak jasan ez dituen sektore apurrenetakoa izanik, etorkizuneko salmentak arriskuan ikusten baititu eta urte beteren edo bi urteren buruan fakturazio-beherakada nabarmenak jasan ditzakeela aurreikusten baita.

 **Ekonomiaren  
joeraren  
aldaketaren  
aurrean zalantzak  
eta ikuspegi  
negatiboak ageri  
dira**




## fakturazioa



Zenbakizko datuak 2008koak dira. Ekipamendu eta Energia ondareen zifra 13.700 milioi eurokoa da.

Ondorioz enplegua ahuldu egin da eta Enplegua Erregulatzeko Espedienteak sektore guztietan zabaldu dira.

## enplegua



Zenbakizko datuak 2008koak dira. Ekipamendu eta Energia ondareen zifra 25.000 milioi eurokoa da.

Sektoreetako ia ordezkari guztiek krisi ekonomikoaren inflexio-puntua hurbil dagoela irizten diote, baina hurbiltasun hori laburra edo luzeagoa da batzuen eta besteen arabera. Krisiari erantzuteko neurri bezala, I+G



***Merkataritzan  
orokorrean eman  
den murrizketak eta  
eragiketak  
finantzatzeko  
zailtasunak eragin  
zuzena eta  
negatiboa daukate***

areagotzea, lankidetzeta, nazioarteko estrategiak indartzea, eta tamaina handiagoko enpresa-taldeak sortzea proposatu dira.

### **Arazo espezifikoak:**

Finantza alorreko krisi ekonomikoa sektore guztien kezka-iturria da, nahiz eta batzuei eta besteei ezberdin eragiten dien. Ildo beretik, horri aurre egiteko era ezberdinak diagnostikatu dira.

Likidezia eta finantzaketa ezak eragin negatiboa dauka Aeronautika eta Espazioan, Automobilgintzan, Biozientzietan, Etxe-tresna elektrikoetan eta Makina-erremintan.

Elektrizitatearen tarifaren gorakadak zuzenean eragin dio Altzairu eta Ingurumenaren sektoreari, eta petrolioaren beheraldia, ordea, on egin dio Papergintzaren sektoreari. Ez da harritzekoak kezkatuta agertzea igoerak datozen iragarpenen aurrean.

Mundu mailako merkataritzaren atzeraldiak kalte egiten dio hartu-emanen bolumenari (Bilboko Portua) eta garraibide berrien kontratazioari: aireontziak, automobilak eta itsasontziak (Aeronautika eta Espazioa, automobilgintza eta Itsas Industria). Eskaera eskasiaren eragin negatiboa gogor nabaritzen da Makina-erremintaren sektorean.

Krisiari aurre egiteko bide bezala esportazioak sustatzearen aldeko apustua egin dute Osagarri, Osagai eta Erreminten sektoreak, Altzairu eta Ingurumenarenak eta Elektronika eta Telekomunikazioenak. Esportatzeko tradizio argia duten beste sektore batzuetan, hala nola Makina-erreminten sektoreak, Txina eta Indiak baizik ez diote eutsi dinamismo maila bati.

Altzarigintzaren sektoreak negozio-ereduaren birmoldaketa beharrezkoa ikusten du, prezioari gehiegi zuzenduta egon den enpresa-ikuspegiak areagotu egin duen krisiari erantzuteko era bezala.

Elektronika eta Telekomunikazioen sektorea, I+G+b sektorean gastu-murrizketa emateko aukerak eta ekoizpen-ahalmenak metatzeko proiektu gehiago ez egoteak kezkatzen du.



**Biziraupenerako  
estrategiak eta  
kanpo-merkatuei  
bultzada**

**Konklusio gisa:**

Kontsumoaren jaitsiera orokorraren egoeran gaudela, finantza-krisiaren ondorioz industria-enpresek horri erantzuteko ahalmena itota daukate. Halatan, apustu nagusia iraupen hutsa da eta gastu aldagarriak eliminatu eta inbertsioak ahal den heinean alboratu egiten dituzte. Esan behar, gainera, inbertsio horiek egiteko kanpo-finantza lortzea ere oso zaila bihurtu dela. Hobeto moldatzen dira ekoizpen-egitura doituak zituztenak eta, kanpoan duten lehiakortasuna dela eta, fakturazioaren gainbeherari eutsi ahal diotenak. Badira ere nazioartean lehiakortasunean aritzeko gaitasun osoa izan arren, eskariaren eskasiaren ondorioz hedatu ezinik dabilzanak.

Enplegu-moten arabera, enplegu aldagarria eta enplegu berria dira egoera honek gehien kaltetu dituenak.

**Sektoreen eta klusterren laburpena**

Sektorea	2009		2008		2007	
	Fakturazioa	Enplegua	Fakturazioa	Enplegua	Fakturazioa	Enplegua
Osagarriak, Osagaiala eta Erramientak	↘↘	↘↘	↕	↕	↕	↔
Altzairua eta Ingurumena	↘↘	↘↘	↕	↕	↕	↔
Aeronautika eta Espazioa	↘↘	↘↘	↕	↕	↕↕	↕↕
Ikus Entzunezkoak	↘	↘	↕	↕	↕	↕
Automobilgintza	↘↘	↘↘	↘	↘↘	↕	↔
Ekipamendu eta Energia Ondareak	↘	↘				
Biozientziak	↔	↔	↕	↕	↕	↕
Etxetresna-Elektrikoak	↘↘	↘↘	↘↘	↘↘	↕	↘
Elektronika eta Telekom.	↔	↕	↕↕	↕	↕↕	↕↕
Esku-Erreminten Esportatzaileak	↘↘	↘↘	↘	↘	↕	↕
Itsas Industria	↕	↕	↕↕	↕↕	↕↕	↕↕
Makina-Erreminta	↘↘	↘↘	↕	↔	↕↕	↔
Ingurumena	↕	↔	↕↕	↕↕		
Altzarigintza	↘↘	↘↘	↕	↘	↕	↘
Papergintza	↘↘	↘↘	↘↘	↘↘	↘	↘
Kimika	↘↘	↘↘	↘	↘		
Bilboko portua	↘	↘	↕	↕	↕	↔



Joera negatiboaren amaiera begi-bistan dagoela dirudi baina sektore-eragileen artean ez dago adostasunik luzaeraren inguruan. Bien bitartean, sektoreen krisiaren eragin negatiboak leuntzeko ekinbideak eskatzen dizkiote administrazioari, adibidez, prestakuntzarako laguntzak, I+Grako eta nazioartekotzerako laguntzak, ekipamendua berritzeko laguntzak eta enplegua mantentzeko laguntzak.

### **Sektoreek emaniko informazioaren laburpenak**

**Osagarriak, Osagaiak eta Erremintak.** 2008. urtea oso irregularra izan zen: lehen sei hilekoan jarduera ona izan zen, askotan historikoa ere bai, baina urteko azken hiruhilekoan oso negatiboa izan zen, batik bat azarotik aurrera. Europako merkatuak dira oraindik helmuga nagusiak, eta Alemania, Frantzia eta Italiaren artean esportazioen %53 biltzen dituzte. Era berean, 2009 fakturazioaren gainbeherak hiru herrialde horiek izan zuten zati nagusia. Urtearen amaierari begira, ikuspegi baikorrenek ekitaldia iaz baino %45 fakturazio gutxiagorekin eta %50eko esportazio gutxiagorekin ixtea aurreikusten dute.

*Informazioa zabaldu +*

**Altzairua eta Ingurumena.** 2009ko lehen lauhilekoan sektorearen ekoizpena 1,1 milioi tonatik hurbil egon zen, eta 619 milioi euro fakturatu ziren. Harrezkero jarduera %52 inguru murriztu da, gaur egungo egoera ekonomikoaren ondorioz altzairuaren eskaria asko gutxitu da eta. Honekin batera automobilgintza sektoreko merkatuaren eta estatu mailako eraikuntza sektorearen gainbeherak etorri dira. Egoerari esportazioak handituz egin nahi zaio aurre. 2009ko azken hiruhilekoan jarduerak murrizten jarraituko duela aurreikusten da; hainbat lantegi geldiaraziko dira eta haien funtzionamendua merkatuaren egoerari egokitu beharko zaio uste da. Urtearen amaieran eskaera berreskuratzen hasiko dela espero da. Bestalde, energia elektrikoaren prezioen gorakadak labe elektrikoak duten altzairutegien ekoizpen-kostuak gora bultzatzen ditu.

*Informazioa zabaldu +*

**Aeronautika eta Espazioa.** Programa aeronautiko berriak abian direnez eta etorkizunean airezko trafikoa normaldu egingo dela aurreikusten denez, epe luzerako perspektibek onak izaten jarraitzen dute. Alabaina, epe motzeko eta ertaineko benetako egoera oso nahasia da, geldialdiaren tamaina dela eta. Ez da espero susperraldia 2010eko amaiera baino lehenago iritsiko denik. Euskadiko ETEetan fakturazioa %30etik behera jaitsi daitekeela aurreikusten da. Gainbehera AIRBUS programari eta EMBRAER programari lotutako enpresetan emango da batik bat.

*Informazioa zabaldu +*



**Ikus Entzunezkoak.** 2009ko ekainean egindako azken aurreikuspenek erakusten dute ikus-entzunezko sektore osoan fakturazioa %18 inguru jaitsiko dela, nahiz eta teknologia berrien enpresetan produkzioari eutsi egingo dioten. Bitartean, edukien ekoizpeneko enpresa ertainetan gainbehera %30 eta %40 bitartekoa izango dela aurreikusten da. Gainbeherak 2010 ekitaldi osoan jarraituko duela espero da. Edukien ekoizpeneko enpresetan enplegu finkoari zailtasunez eusten zaio eta aldi baterako enplegua %40 murriztu da. Ikus-entzunezkoen sektore osoan, enplegu murrizketa guztira (finkoa eta aldi baterakoa) %10 ingurukoa izan da.

*Informazioa zabaldu +*

**Automobilgintza.** Krisi globalak ibilgailuen kontsumoan eragin duenez, 2008ko azken hiruhilekoak eta 2009ko lehen biak oso negatiboak izan dira. Horren atzean, ekonomiarekiko mesfidantza eta banka sektoretik datorren finantzaketa falta aipatu dira. Honen guztiaren eraginez sektorea asko-asko moteldu da garai honetan, eta 2008ko lehen sei hilekoan sortutako stock-aren aurka borrokatu behar izan du. Une honetan badirudi egoera inflexio-puntuan dagoela, aurreikuspenen arabera urtea amaitu bitartean susperraldi txiki bat emango da eta.

*Informazioa zabaldu +*

**Ekipamendu eta Energia Ondareak.** Energiaren eskaera %20 baino gehiago murriztu da. Ondorioz, enpresa operadoreei likidezia murriztu zaie eta inbertsioak ere moteldu egin behar izan dituzte. Dena den, krisiak ez dio berdin eragin sektore osoari. Gehien igarri dutenak tentsio baxu eta ertainari begirako produktuekin lan egiten dutenak izan dira. Tentsio handiari zuzendutako enpresek, nazioarteko merkaturan jarduteko prestatuta daudenak, gaur egun ere maila onean jarraitzen dute. Clusterreko enpresak garapen-prozesuari ekin diote; helburua, eguzki-, aire- edo itsas energien ustiapenean, edota energiaren eraginkortasunean, biltegitratze elektrokimiko eta termikoan, sare elektriko aktiboetan edo ibilgailu elektrikoan, nazioarteko erreferentzia bihurtzea da.

*Informazioa zabaldu +*

**Biozientziak.** Datuek aditzera ematen dutenez, krisiaren eraginak gogorragoak izango dira 2009an. Dena delarik ere, esan behar da urteko lehen erdian bi enpresa berri sortu direla eta Euskadi beste autonomia-erkidegoak baino interesgarriagoa ikusten dela enpresak ezartzeko unean. Aurreikuspenen arabera, sektoreak ez du lortuko 2008ko fakturazioen eta I+G alorreko inbertsioen mailarik, eta 2009ko zenbatekoek antz handiagoa izango dute 2007koekin. Enpleguak eta esportazio-emaitzak 2008an lortutakoen parekoak izango dira baina oso kontuan



hartu behar da sektorean azkenean lortu den emaitza, bi farmazia-enpresek lortuko duten emaitzari hertsiki lotuta egongo dela.

*Informazioa zabaldu +*

**Etxetresna elektrikoak.** Etxeko elektrotresnen, altzarigintzaren eta osagaien azpisektoreen fakturazioa %20 inguruan murriztu da 2008 eta 2009an, batik bat altzarigintza eta eraikuntza sektoreen gainbeheraren ondorioz. Horri banaketa-bideen finantza-arazoak gehitu behar zaizkio. Egoera suspertzeko neurriak hartzen ari dira, baina egoera larria da.

*Informazioa zabaldu +*

**Elektronika eta Telekomunikazioak.** Fakturazioan beheraldi apala izango dela aurreikusten da (-%0,1), eta gainera eragina ezberdina izango da bezero-atalaren eta nazioarte mailako kokalekuaren arabera. Nazioartekotzea nabarmen haziko dela ere aurreikusten da, %8,9 inguru, eta I+G alorra %2,1 haziko dela espero da. Halere, sektoreak aurkeztu dituen proiektuei programa publikoek nola erantzungo dien baldintza dezake hazkunde hau. Enpleguaren zenbatekoak egonkortasuna erakusten du, 12.100 profesional, baina espezializazio altuko soslaia duten langileen kasuan kontratazioak izango direla espero da. Bigarren seihilekoa larriagoa izango da soilik nazio mailako merkatuan aritzen diren enpresentzat. Krisiak gehien eragingo dien azpisektoreei dagokienez, industria-ekoizpenarena izango da egoera txarrena jasango duena.

*Informazioa zabaldu +*

**Esku-erreminten Esportatzaileak.** Nazioarteko krisiak, eta Espainiako eraikuntza alorreko krisiak zuzen eragiten diete erreminta-fabrikatzaileei, nazio mailan %40ko gainbeherak izan baitituzte salmentetan. Industria eta automobilgintza sektoreen egoera txarrak ere eragiten die, baina maila apalagoan. Honi kanbio-tasaren arazoa erantsi behar zaio, badira eta urte batzuk Europako fabrikatzaileek arazo horri aurre egin behar diotela. Aurreikuspen baikorrenek ere ez dute jardueraren gorakadarik antzematen 2010 ondo joanda egon arte, ez baitirudi eraikuntza sektoreak momentuz susperraldirik izango duenik.

*Informazioa zabaldu +*

**Itsas Industria.** Itsas ekipamenduen fabrikatzaileek lan-kargaren murrizketa nabarmena jasan dute, batik bat Asiako eta Amerikako merkatuetatik itsasontziak egiteko eskaerak bertan behera utzi dituzte eta. Eskaera-hutsegite hauek gehi ontzi gehiago egiteko eta zaharrak ordezkatzeko inbertsioen atzerapenak, euskal enpresen ekoizpenari eragiten diote, eta 2009, 2010 eta 2011 urteetarako aurreikusten ziren lan-jarduerak



nabarmen murriztu behar izan dira. Euskadiko ontziolek 2010era arteko eskaera-zorroari eusten diote baina hitzarmen berriak sinatzen ez badira ekoizpen-aitzindariak datorren urtearen erdialdean hasiko dira astirotea nabaritzen.

*Informazioa zabaldu +*

**Makina-erreminta.** Uda ostean munduko merkatuetan igarri den joera-aldaketa larriak, orain arte ezagutzen ez ziren eskaera-murrizketak eragin ditu mundu mailako eskaeretan, eta horren ondorioa eskaera-sarreretan gainbehera sakona eta joera latza izan dira: 2008ko iraila, 2007ko batez bestearekiko -%20ko beheraldia; urria -%40; azaroa -%60; abendua -%83, eta kopuru hori 2009ko hasieran finkatu egin da. Urte honetako lehen bost hilabeteetan joan den urteko garai beraren aldean %74ko murrizketa izan da eskaeretan. Duela hil gutxi batzuk, sikiera aldi baterako enpresen biziraupena ziurtatzen zuten eskaera-zorroak agortuz doaz eta irailetik aurrera ikuspegia samingarria da.

*Informazioa zabaldu +*

**Ingurumena.** 2008koa urtealdi ekonomikoa historikoa izan zen eta fakturazio-zifrak aurretik ere goraka zihoazen zifren gainetik kokatu ziren. Egoera horren aurrean, ordea, 2009ko urtealdian hazkundera aurreko urteetako hazkundera "normalen" barruan kokatuko dela aurreikusten da. 2007tik datorren joerarekiko %10eko hazkundera espero da.

*Informazioa zabaldu +*

**Altzarigintza.** 2008an Euskadiko altzarien esportazio-kopurua 105,22 milioi eurokoa izan zen, estatu mailako esportazioen %6,7. Frantzia, Portugal eta Erresuma Batua izan ziren helmuga nagusiak. 2009rako esportazioak %8 jaitsiko direla aurreikusten da. Euskadiko esportazioen %70 euro gunerantz abiatzen da, eta altzarien eskaeraren gainbeherak negatiboki eragin die. Euskadiko Habitat eta Instalakuntzaren sektoreak birmoldaketa sakona behar du; negozio-ereduaren aldaketa beharrezkoa da: kontsumitzaileari begirako jardunean oinarritu behar da, balio erantsi handiagoa eskaini, prezioaren aldetik soilik lehiatu beharrean.

*Informazioa zabaldu +*

**Papergintza.** Sektoreak eragin guztiz kontrakoa duten bi fenomeno gertatzen dira: alde batetik eskaera eta eskaera-zorroa gainbeheran datoz; bestalde, lehengaien eta hornikuntza energetikoen prezioak ere beherantz datoz. Enplegua Erregulatzeko Espedienteak sektore osoan hedatu dira.

*Informazioa zabaldu +*



**Kimika.** Kriaren eraginak industria osoan hedatu dira, eta Oinarrizko Industria Kimikoa, Espezializatutako Kimika, eta Kautxua eta Plastikoak Eraldatzeko azpisektoreak are gehiago sufritzen ari dira, 2008ko amaieran dagoeneko ezkorrak ziren aurreikuspenak baino are txartoago. Fakturazioan batez besteko gainbeherak %50ekoa, % 6 eta 15 bitartekoa eta %12,5ekoa dira hurrenez hurren. *Informazioa zabaldu +*

**Bilboko Portua.** 2009ko maiatzeko datu itxiak argi erakusten dute salgaien mugimenduaren atzerakada nabarmena izan dela Bilboko portuan: iazko epealdiarekiko %16,8ko beheraldia izan da. Gaur egungo egoeran ezinezkoa da datorren hiletan egon litekeen portuko trafikoari buruz hitz egitea, baina 2009ko martxotik aurrera beharoko joera zertxobait apal daitekeela suma daiteke. Hori horrela izanik, 2009a 2008arekiko %15 inguruko beheraldiarekin itxi liteke. *Informazioa zabaldu +*